



Portugaletako Udala  
Ayuntamiento de Portugaleta



Portugaleta  
.eus

## 250 lagun izena emanda Portugaletako seigarren Mintzodromoan



Euskararen erabilera sustatzeko eta hizkuntza ikasten ari direnen artean jarrera aktiboa bultzatzeko helburuarekin, aurtan **Portugaletako Udalak, Udal Euskaltegiak eta Xaribari AEK Euskaltegiak elkarlanean laugarren aldiz** antolatu zuten Mintzodromoa Portugaleten, **maiatzaren 31n (osteguna) San Roke plazan**. Goizean saio bat zegoen aurreikusita **10:00etan** eta arratsaldean beste bat **17:00etan**.

Goizeko saioan 160 bat lagun zeuden izena emanda, baina bertan behera utzi behar izan zuten antolatzaileek, euria zela kausa. Hala ere, euskaldun asko hurbildu ziren eta une atsegina eman zuten elkarrekin solasean eta kafea hartzen.

Arratsaldeko saioan, behin euria atertuta, 60 bat parte-hartzaile elkartu ziren, gehienak herriko euskaltegietatik etorruta. Halarik ere, beste euskaldun batzuk ere hurbildu ziren San Roke plazara elkar ezagutzera eta, kafea eta pastak hartu bitartean, elkarrekin gozo-gozo mintzatzera. Haietako bat, gainera, irabazle suertatu zen liburu elektronikoko baten zozketan eta e-booka besapean itzuli zen etxera.

Mintzodromoaren funtzionamendua betiko berbera izan zen: parte-hartzaileek, taldeka elkartuta, berriketa lasaian interes orokorreko gaiez jardun zuten. Aurtengo **gaiak** hauexek izan dira: sare sozialak (erabilienak, fidagarrienak, alde onak zein txarrak), gazteak eta helduak (zertan diren berdinak eta zertan ez) eta oporrak eta turismoa (gu kanpora goaz eta beste batzuk hona datoz). Gai bakoitza jorratzeko hamabost minutu izan zituzten. Gai baten eta bestearen artean, parte-hartzaileak taldez aldatzen zirenez, beste mintzakide batzuk ezagutzeko parada izan zuten.

**Hona hemen goizeko saioko argazkiak:**

**<https://photos.app.goo.gl/73axecIMd870xDC12>**

**Eta hona hemen arratsaldekoak:**

**<https://photos.app.goo.gl/1kgd5M41bynf4F267>**



## 250 personas inscritas en el sexto Mintzodromo de Portugalete



Con el objetivo de fomentar el uso del euskera y promover una actitud activa entre quienes se encuentran estudiándolo, **el Ayuntamiento de Portugalete, el Euskaltegi Municipal y el euskaltegi Xaribari de AEK** celebraron por sexto año consecutivo el **Mintzodromo** el pasado **jueves 31 de mayo** en la plaza San Roque, con una sesión matutina prevista para las 10:00 y otra vespertina para las 17:00.

La sesión de mañana del Mintzodromo, en la que se habían inscrito 160 participantes, tuvo que suspenderse a causa de la lluvia. Así y todo, pudieron juntarse varias y varios euskaldunes, tomar un café y charlar un rato divertidamente.

En la de la tarde, ya con mejor tiempo, participaron aproximadamente 60 personas, en su mayoría procedentes de los euskaltegis de Portugalete, aunque también se acercaron otras y otros euskaldunes de la localidad. Por lo general, participaron personas que se encuentran aprendiendo euskera, que vinieron al Mintzodromo a conocerse entre sí y a charlar amigablemente con café o refrescos y pastas.

Además, una participante regresó a casa con un interesante regalo bajo el brazo, pues le sonrió la fortuna en el sorteo de un libro electrónico.

El funcionamiento del Mintzodromo fue el mismo de años anteriores: las y los participantes se agruparon de cinco en cinco y charlaron tranquilamente sobre estos temas: las redes sociales (uso, fiabilidad, ventajas e inconvenientes), la gente joven y las personas maduras (en qué se parecen y en qué se diferencian) y las vacaciones y el turismo (gente que sale de aquí y gente que nos visita). Dedicaron a cada tema quince minutos y, al cambiar de uno a otro, tuvieron que cambiar también de contertulias y contertulios, con lo que aumentaron sus posibilidades de conocer gente con la que comunicarse en euskera.

**Aquí están las fotos de la sesión matutina:**

**<https://photos.app.goo.gl/1kgd5M41bynf4F267>**

**Y aquí las de la sesión vespertina:**

**<https://photos.app.goo.gl/1kgd5M41bynf4F267>**